

PICEren KOSTUAK

Dakigunez, enpresa bat aurrera ateratzeak hainbat gastu daramatza eta gastu horiei aurre egiteko gai izan behar gara. Horretarako sarrera gehiago izan beharko ditugu kostuak baino. Enpresa batean bi motatako kostuak daude: finkoak eta aldakorrak.

Gure kasuan kostu finkoak dendaren alokairua, soldatak, ura, argia eta webgunearen hosting-a izango da. Lehenik, denda bakarra izango dugu, Gasteizko erdigunean kokatuta egongo dena, non produktua diseinatuko da eta bulego txikiak egin beharko ditugu lan egiteko. Horretarako, Domingo Beltran kaleko lokal bat (392m² dituen) hartuko dugu alokairuan, hilabetero 1950€ ordainduz. Kostu finkoekin bukatzeko, esan beharra dago, web gunearen hosting-a 100-200€ artekoa izango da hilabetero.

Kostu aldakorrak, aldiz, eskaerak Seur enpresak egingo dituenek (Gasteiztik kanpo), garraio motaren eta urruntasunaren arabera kostuak aldatuko dira. Hau da, banaketa zenbat eta urrunago egonda, kostuak altuagoak izango dira. Garraioak Gasteiztik kanpo baina probintzia barruan badira, produktua 3 euro izango dira eta garraioa 100km-tik gora bada aleko 5 euro izango dira kostuak.

Ekoizpenaren arloan iFlytek 100€ kobratuko dizkigu unitateko (30 egunetara ordainduko ditugunak) eta guk 500 eurotan salduko ditugu, kostuei aurre egiteaz aparte etekinak lortu ahal izateko.